

EUSKALTEGIEN TXOKOA

UDAL EUSKALTEGIA

**Astebeteko egonaldia Saharako
kanpamentu batean / II**



Bake Uhartea zarataren erdian / III



**Zure ametsetako bidaia amets gaiztoa
bihur daiteke / IV**

Ana Rodríguez Hernaniko Udal Euskaltegiko ikaslea da. 2006ko abenduaren zubian, Tindoufera (Argelia) joan zen Saharako kanpamentu bat ikustera, Smara, hain zuzen ere. Tindoufen Smara kanpamentuaz gainera, beste hiru kanpamentu daude: Auserd, Dajla eta Aaiún. Etortzean, bidaiari buruz hitz egin zigun beste ikasleoi, eta elkarrizketa txiki bat egitea erabaki dugu.

ANA RODRIGUEZ

Hernaniko Udal Euskaltegiko ikaslea:

Astebeteko egonaldia Saharako kanpamentu batean!



Ana bertako jantziekin, eskuak hennarekin apainduta dituela.

Nola sortu zen horrelako bidaia egiteko asmoa?

Orain dela bi urte, Baztango lagun bat joan zen hara. Berak sahararren egoeraren berri eman zidan eta hori entzun eta gero joateko irrikan nengoen. 2006ko urrian, Tindouferako bidaia, RASD-en bidez, antolatu zen eta ez nuen aukera galdu nahi izan, beste lagun askok bezala. Izan ere, Hego Euskal Herritik lauhundik gora joan ginen; eta Estatu osotik 10.000 inguru.

Zein izan zen lehenengo inpresioa kanpamentua ikustean?

Nahiz eta joan baino lehen, han aurki genezakeenari buruz beste pertsona batzuekin hitz egin, bat ez da konturatzen hara joan arte han ez dagoela ezer, basamortuaren erdian zaudela. Eta pentsatu nuen: "Nola da posible hemen bizitzea, ia ezer gabe, argindarrik gabe, urik gabe..." Gero, egunak aurrera joan ahala, ezagutzen zoaz nola lortzen duten ura, argindarra eta abar; eta konturatzen zara kanpotik bidaltzen zaien laguntza ezinbestekoa dutela bizirauteko.

Sahara aipatzean, denok pentsatzen dugu oso leku beroa dela, izan ere, basa-

mortua baita. Zuek nolako eguraldia izan zenuten?

Joan aurretik, hara joaten den batekin hitz egin genuen eta berak esan zigun normalean, abenduan, gauean eta goizean izugarritzko hotza egiten duela eta egunean zehar epe-lago. Hala ere, aurten negua ez da izan hain hotza, hemen gertatu den bezala; gauean hotz egiten zuen, eta arropa jantzi beharra zegoen, baina egunean zehar mahuka moztetan ibiltzen ginen. Bestalde, esan behar da udan eguraldia bero-beroa dela.

Zer egin zenuen egun horietan?

Hasieran, gure bidaiaren arrazoia zen Saharako Heziketa Bereziko Eskola bisitatzea, bertan egiten duten lana ikusteko. Baina gero, aukera izan genuen gauza gehiago ikusteko. Adibidez, hango ospitaleen egoera, haurtzaindegia egoera, azoka, eskolak, Auserd kanpamentua eta abar.

Non hartu zenuten ostatu?

Oro har, hemendik joaten den jendeak hango familien etxetan hartzen du ostatu, ez dago hotelik edo horrelakorik. Gu, adibidez, lau ginen eta bisitatzera gindoazen eskolako zuzendariaren etxean egon ginen egun guzti horietan.

Non egiten zenuten lo, logelatan?

Han jendea etxetan eta jaimetan bizi da. Jaimak kanpadenda antzekoak dira eta logela banaketarik ez dute. Etxeek, bai. Gu egon ginen etxeak egongela, bi logela, sukalde txiki bat eta komun bat zituen. Eta guk, laurok, lo egiten genuen egongelan, lurrean botatako koltxoi antzeko batzuetan.

Nola moldatzen zineten otorduak egiteko?

Bazkaria eta aforaia etxeokokin, hobeto esan, etxeok gizonetakoekin egiten genituen. Hango ohitura da gizonak bisitarietara egotea, eta emakumeen lana da otorduak eta etxeok beste lan guztiak egitea. Gosaldurik egiten genuen, baina etxeokandreak prestatzen zuen. Azkenean, lortu genuen denok elkarrekin bazkaltzea eta afaltzea. Halere, gosaltzen bakarrik jarraitu genuen.

Alde handia al dago hemen go eta hango janarien artean? Probatu al zenuen bertako janari berezirik?

Guk han ia hemen bezala jaten genuen: gehienetan lekariak, lapiko espresean eginak, ur eta gas gutxi gatzatzeko. Hemendik janari dezente eramanez genuen beraientzat, ez guretzat. Baina, ahal dutena baino

gehiago eman nahi izaten dizutenez, guk eramandakotik ere jan genuen zenbait egunetan. Bestalde, beraien janaria ere probatu genuen: gamelu haragi gisatua, cous-cous, "pintxo morunoak"... eta egia esan behar badut oso-oso goxoak iruditu zitzaizkidan.

Hango umeak eskolara joaten al dira?

Bai, ia ume guztiak joaten dira eskolara; oso adin txikiak ere bai, haurtzaindegira. Lehen esan dudana bezala, gu egon ginen etxeok gizona ezindu fisikoak nahiz psikoak hartzen dituen eskola berezi bateko zuzendaria da, eta harekin batera eskola berezi horretako ikasleen egun bat nolakoa den ikusteko aukera izan genuen.

Konta iezaguzu nolakoa den egun horietako bat.

Normalean, goizean goiz, zuzendaria land-rover batekin etxez etxe joaten da bere ikasleen bila; buelta bat baino gehiago egin behar izaten du, izan ere, berrogeita hamarretik gora ikasle baitira orotara. Elkartzen dira eskolan, eta han gosaltzen dute zaintzaileekin batera. Ikasle horietako batzuk laguntzen diete eskolako laguntzaileei bazkaria prestatzen. Gero, talde ezberdinetan banatzen dira: batzuk, psikomotritate lanetan dute, beste batzuk josi

egiten dute, beste batzuk egurra lantzen dute, beste batzuk liburategian aritzen dira irakurtzen, margotzen eta abar. Tailerretan egiten dituzten lanak salgai jartzen dituzte eta ateratzen duten dirua ikasleentzat beraientzat da. Bazkaldutakoan, zuzendariak berriro hartu ikasleak land-roverrean eta bakoitza bere etxera bueltatzen du.

Azken finean, eskolaren helburua ikasleen autonomia bultzatzea da.

Eta zeintzuk dira eskolaren beste helburuak?

Ikasleen integrazioa. Ikusi dugunaren arabera, zaila da edonorentzat horrelako egoeran bizitzea. Eta are zailagoa ezindu psikiko edo fisiko den batentzat. Izan ere, orain gutxi arteko joera izan da horrelako pertsonak familia barruan ezkatzea. Eta eskola hau saiatzen da, bere neurrian, egoera hori gaintzen.

Kontatu diguzuna entzun ondoren, badirudi oso espezializazio polita izan dela zuretzat. Ba al duzu hara bueltatzeko asmorik?

Bai, noski. Oso gustura bueltatuko nintzateke; baina gehiago gustatuko litzaidake sahararren egoera aldatzea, onera, eta beste era batean joatea. Halere, zail ikusten dut haien egoerak hobera egitea.



Eskola aurrean ikasleak, zaintzaileak, zuzendaria eta bisitariak.

Bake uhartea zarataren erdian

15 moja Agustindar bizi dira Hernaniko komentuan isiltasun, kastitate eta klausura botoak errespetatuz.

Gai horretan sakontzeko Eulali Aranbururengana jo genuen, andereño erretiratu bera, asko daki-eta Hernaniko historiaz eta mojei buruz. Berari esker, gainera, mojen komentua bisitatzeko aukera izan genuen.

Komentua Hernaniko errotonda erabilienaren erdian dago; barruan, ordea, bake handia arnasten da, uharte bat izango balitz bezala. Agustindarren komentua izan liteke denok noizean behin behar dugun lekua bakea eskuratzeke. Komentuan sartutakoan konturatu ginen zein leku ederra daukagun herriaren erdian. Eguzkia txoko guztietatik sartzen da, oso leku argitsua, zabala eta goxoa eginez. Lorategia eta baratza ere oso leku politak eta zainduak dira, baina aipagarria da barruko klaustroa, mojen bizimodua ederki islatzen duelako: txikia, umila, xumea, baina bizitasunez betea.

Arau oso estuak zituztela pentsatu arren, aurkitutakoa desberdina izan zen. Moja alai batek, Ama Nagusia, atea ireki eta komentu osoa erakutsi zigun. Bisitan ari ginela, klausurako komentua izanda, espero ez genuena gertatu zen, moja kuttun batekin topo egin genuen pasilloan, eta harritu egin gintuen gu ikusi eta gero eskainitako harrera alaiak eta irribarreak. Geroxeago, hura ezustekoa gurea, Ama Nagusiak aukera eman zigunean beste mojak ere eza-gutzeko, tailerlean lanean. Momentu goxoa pasa genuen elkarrekin eta lehen pasilloko mojarengan bezala, tailerrekoengan ere alaitasun, goxotasun eta samurtasun berbera sumatu genituen. Hori dela eta, harrituta eta hunkituta geratu ginen eskaini ziguten harrera beroarekin eta goxotasunarekin.

Monasterioaren sorrera XVI. mendean Eliza Katolikoak aldaketa asko egin zituen bere barruan, alegia, Luteroaren Erreformari aurre egiteko Kontra-reforma sortu zen. Azken horrek, Elizan zeuden abusuen eta fedetik urruntzeen kontra berrikuntza espiritualerako prozesu bat hasi zuen. Prozesu horretan San Agustinen pentsamenduak eragin handia izan zuen Europan zehar. Garai hartan sortu zen Hernaniko Agustindarren monasterioa, emakume beata talde baten kezkei erantzuteko, Juan Martinez de Ereñozuk fundatua. Gizon horren familiak burdino-



Hernaniko Agustindarren komentuko klaustroa, txikia bezain polita.

lak zituen eta, ola ondo eramateaz gainera, merkataria ere bazen, oso trebea gainera. Horretaz aparte, oso gizon fededuna zen eta bere bi alabak moja sartu nahi zuten, Hernaniko monasterioa sortu zuen.

1544. urtean Hernaniko Udaltzatzak monasterioa eraikitzeke baimena eman zion eta, horretarako, Parrokia zaharreko eraikina eskaini zioten, bere inguruan egiteko monasterioa. Gasteizko gotzainak ere baimena eman ondoren jarri ziren martxan lanak eta erlijio-elkartea.

Agustindarren ordena

Moja Agustindarren ordena XIII. mendean sortu zen eta hasieratik Fraide Agustindarren agindupean zeuden. Fraideen ordena V. mendean sortu zen eta IV. mendean Afrika Iparraldean jaiotako San Agustin santuarengandik hartu zuten izena. San Agustin filosofo eta santu katolikoa izan zen, mendebaldeko kristautasunaren gizonik garrantzitsuenetakoa. Filosofian egin zituen bere ikasketak eta 32 urte zituela kristau egin zen. 5 urtez izan zen apaiz eta zenbait santutegi eraiki zituen Italian zehar. 1.030 obra idatzi zituen, gutunak eta homiliak horien artean.

San Agustindarren ordenak debekuak eta txikizio batzuk sufritu ditu bere historia luzean eta, gaur egun, ehun bat komunitate daude munduan zehar, batez ere, Europan eta Ameriketean.

Moja Agustindarren botoa "Jaungoikoarenganako konpromiso bat da" Eulalik esan digunez. Zentzu horretan, bere leloa "Ora et labora" da eta hiru boto bete behar dituzte: kastitatea, isiltasuna eta klausura. Isiltasunak ez du esan nahi ezin dutela hitzik egin, badaukate neurri batean hitz egitea. Otoitza dute, berriz, eguneko eginki-

zun nagusi. Izan ere, Eulalik aipatzen duenez, "bere bizitza sumisioaren eta botoak errespetatzearen inguruan antolatuta dago, nahiz eta gaurko arauak ez diren hain zorrotzak".

Garai batean, Hernaniko Agustinen lana enkuadernatzea eta bordatzea baziren ere besteak beste, lan mota hori bukatu egin da, gaur egun dena mekanizatuta dago-eta.

Eguneroko bizitza

Hernaniko Zinkoenea txokoak orain dela urtebete bere itxura erabat aldatu zuen. Horren ondorioz, Agustindarren komentua ere goitik behera berritu zuten. Mojek esan digutenez, oso pozik daude instalazio berrieekin: bainugela logela barruan, sukalde handia, igogailua, argitasuna...

Aldaketak aldaketa, betiko bizimoduarekin jarraitzen dute. Momentu honetan, esana dugun bezala, 15 moja bizi dira, bederatzi hemengoak eta sei kanpotarrak, filipinarrak hain zuzen. Hemengoak, adinekoak dira. Zaharrenak aurten beteko ditu 100 urte eta gazteenak 63 ditu. Kanpokoak, berriz, gazteagoak dira, etorri berriak.

Nahiz eta bere ekintza nagusia otoitza izan, egunean zehar beste hainbat lan ere egiten dituzte. Komunitatean bizi direnez gero, eguneroko lana banatuta daukate: batzuk plantxaz arduratzen dira, beste batzuk sukaldeaz, beste batzuk etxeko garbiketaz... Horretaz aparte, tailerlean eta baratzean lan egiten dute bizimodua ateratzeko. Astelehenean bisitatu genituen, tailerlean ari ziren gehienak, baita zaharrena ere, lanerako eskularruak egiten Errenteriako enpresa batentzat. Baratzean, berriz, egunero sukaldean behar izaten dituzten barazkiak lantzen dituzte. ■



Komentuko koroa: Egurra nagusi.



Komentuko aldarea, komentuaaren isla: apaingarririk gabea, baina ederra.

Ametsetako bidaia amets gaiztoa bihur daiteke

Zenbat eta informazio gehiago eduki, orduan eta hobeto joango dira oporrak, ezustekorik gabe.

Aste Santuko oporrak berehala iritsiko dira, udakoak ere bai, eta nori ez zaio gus-tatzen bidaiaren bat egitea? Batzuetan, ordea, bidaia horretan jarri ditugun itxa-ropenak, gogo eta beste gauza asko ez dira betetzen, eta ez dakigu zer egin gure eskubideak bermatzeko, ezta nora jo erreklamazioak egitera ere. Gu Intxaurren-don dauden kontsumo ge-lara joan gara informazio es-ke, eta han jasotakoa hela-razi nahi dizuegu erreporta-je honetan.

Bidaia hasi aurretik

Bidaia kontratatu aurretik, agentzia bat baino gehiagotan galdetzea komeni da, kalita-tea eta prezioa konparatzeko. Bestalde, ditugun zalantza guztiak argitu behar dizkigu-te bidaia agentzian.

Informazio liburuxka jaso-ko dugu eta sinatutako kon-tratuaren kopia eskatuko dugu. Bertan taulan aipatzen diren osagai guztiak jasota dauden begiratuko dugu. Horretaz gain, bidaia hasi aurretik, agentziak ondorengo informazioa eman behar digu idatzita:

Bidaia eta garraioari buruz:

Bidaiaren iraupena, ibilbidea, egutegia, zer garraio bide mo-ta den eta haren ezaugarriak aipatuz.

Bidaian bertan arazoak konpon-tzeko harreman-bideak:

-Agentziaren izena, helbidea eta telefono-zenbakia.
-Agentzia ez baldin badago, ordezkarien telefonoa.

Bidaia agentziak eskaintzen duen aseguruaz gain, beste aseguru bat egiteko aukera daukagu, gaixotasun edo heriotza kasuan asistentzia izateko, eta ezin badugu bidaia egin dirua bueltatzeko.

Bidaiari uko egitea

Eskatutako edo kontratatuta-ko bidaia konbinatuari uko egitea erabaki dezakegu, eta ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskubidea izango dugu kasu batzuetan. Hala eta guztiz ere, agentziak kudeaketa-gastuak, deusezta-pen-gastuak eta kalte-ordainak kobratuko dizkigu.

Zenbat eta lehenago esan ez dugula bidaia egingo, orduan eta txikiagoa izango da ordaindu beharreko kalte-ordaina.

BIDAIARI UKO EGITEA

10- 15 egun lehenago

Prezio osoaren % 5

3-10 egun lehenago

Prezio osoaren % 15

48 ordu barruan

Prezio osoaren % 25

Agertu ezean

Prezio osoaren % 100



Paradisua ala infernua?

Bidaiaren erreserba beste nor-baiti emateko eskubidea du-gu, baina irten baino 15 egun lehenago agentzia jakinaren gainean jarri behar dugu.

Prezioen aldaketa

Agentziak alda dezake kontra-tatutako bidaia konbinatuaren prezioa gora nahiz behera; prezio berriaren kalkuluak egiteko izango ditu kontuan: tasa eta zergen prezio berriak, garraioaren kostuaren igoe-ra edo jaitsiera eta ezarri diren truke-tipoak.

Agentziak bidaia bertan behera uzten badu edo kontratuaren elementu garrantzitsuren bat aldatu behar baldin badu

Agentziak bi-daia bertan be-hera uzten ba-du, bi aukera hauen artean hautatu deza-kegu:
-Ordaindutako diru guztia be-rreskuratzea.

-Beste bidaia baliokidea edo hobea egitea.

Eskaintzen digutena oke-rragoa baldin bada, aldea ordaindu beharko digute. Horrez gain, guk bidaiari uko egiten diogunean bezalaxe, antolatzaileek edo bidaia agen-tziakoez kalte-ordaina eman behar digute. Jakiteko, gutxi gora behera, zenbatekoa izan-go den jasoko dugun kalte-ordaina begiratu bidaiari uko egitea atalean dagoen taula.

Antolatzaileak kontratua-ren elementu garrantzitsuren bat aldatzen baldin badu, berehala jakinarazi behar digu. Kasu horretan kontratua ama-itutzat jo dezakegu, eta agen-tziak bidaia bertan behera uzten duenean ditugun esku-bide berberak izango ditugu. Aldaketa onartzen badugu, berriz, aldaketak zehaztu beharko dira, baita aldaketa horiek prezioan izango duten eragina ere.

Halere, agentziak ez du kalterik ordaindu beharrik izango kontratuan hala jasota dauden kasuetan eta ezinbes-tekotzat jotzen diren arra-zoiengatik.

Itundutako baldintzak betetzen ez badira

Bidaia hasi ondoren, antola-tzaileak ez badu kontratatuta-

ko zerbitzuren bat ematen, konponbide bat bilatzeko beharra dauka gehigarriak jarri gabe prezioan. Baina hartutako konponbideak guk ordaindutakoa baino merkea-goak badira, aldea ordaindu behar digute.

Antolatzaileak eskaintzen dizkigun konponbideak onar-tezinak badira, garraio bidea jarri behar digute, abiapuntu-rra itzultzeko. Gainera, kalte-ordainak erreklamatzeko es-kubidea izango dugu.

Nola ekidin eta konpondu arazoak: erreklamazioak

Bidaiari buruzko publizitatea, programa eta kontratuaren kopia eramango ditugu bi-daian erreklamazioa egin be-har badugu. Horretaz gain, egindako ordainketa guztien agiriak gorde behar ditugu.

Erreklamatzeko:

-Zerbait gertatzen bada, han bertan saiatu konpontzen, bes-tela erreklamatu.

-Bidaian gaudela, beti arazo-aren berri eman bidai agentziari edo agentziaren ordezkariari...
-Itzultitakoan, agentzian idatziz erreklamazioa jarri.

-Kasu egiten ez badigute, KIUBra jo dezakegu.

-Azkeneko aukera auzi bidea da. ||

| Argibide liburuxketan eta kontratu guztietan nahitaezkoak diren osagaiak | Argibide liburuxkaren analisisa | | | | | | | | | |
|--|---------------------------------|----|------------|----|----------|----|------------|----|-----------------|----|
| | Agentzia 1 | | Agentzia 2 | | Internet | | Handikaria | | Eskaintza orria | |
| | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Bidaiaren iraupena | x | | x | | x | | x | | x | |
| Bidaiaren ibilbidea | x | | x | | x | | x | | x | |
| Egutegia | x | | x | | x | | x | | x | |
| Ostatu mota | x | | x | | x | | x | | x | |
| Kokapena | x | | x | | | x | x | | | x |
| Kategoria | x | | x | | x | | x | | x | |
| Ezaugarri nagusiak | x | | x | | | x | x | | x | |
| Helmugak | x | | x | | x | | x | x | x | |
| Garraio bideak | | x | x | | x | | x | | | x |
| Garraio ezaugarriak | | x | | x | | x | | x | | x |
| Bidaiari buruzko klausulak | x | | x | | | x | | x | | x |
| Bidaia konbinatuaren antolatzailearen izena eta helbidea | | x | x | | x | | | x | | x |
| Bidaia egiteko gubieneko inskripzio kopuruaren kasuan bidaia egiten ez bada abisatzeko epea agertzen den | | x | x | | | x | | x | | x |
| Zerbitzatuko diren otordu kopurua | x | | x | | x | | x | | x | |
| Pasaporteei, bisei eta osasun formalitatei buruzko informazioa | x | | x | | - | | x | | | x |
| Bidai konbinatuaren prezioa | x | | x | | x | | | x | x | |
| Aukerazko txangoen prezioa | x | | | x | | x | x | | | x |
| Aurrekin gisa ordaindu behar den zenbatekoa | | x | x | | | x | | x | | x |
| Finantzatzeko modua | | x | | x | | x | | x | | x |

Hainbat informazio liburuxka aztertu ditugu eta bertan dituzue emaitzak.